

## Thick Evaluation

SIMON KIRCHIN

Oxford: Oxford University Press, 2017, xi + 198 or.<sup>1</sup>

Gure hizketa-ekintza askok izaera ebaluatiboa daukate —hizkuntza erabiltzen dugu ekintzen, gauzen eta egoeren ebaluazioak egiteko—. Adibidez, esan dezakegu pertsona bat *ona* dela, edo berdin antzerki-obra bat, edo ekintzaren bat (barazki asko jatea *ona* omen da, adibidez). Esan dezakegu margolan bat *ederra* dela, edo *itsusia*, *harmoniatsua* dela, edo *berritzailea*. Ez *zenukeela* jokatu zenuen moduan jokatu *behar* diogu, zure lagunari egia esan *behar* zeniola eta *ondradua* izan berarekin, *adoretsua* agian, eta egin duzuna *narras* jokatzera izan dela. Egoera batzuk *justiziazkoak* direla esaten dugu; eta, beste batzuk, ez. Ebidentzia enpirikoari muzin egin eta pseudo-zientziak hobestea *okerra* dela esan dezakegu, justifikatutako usteei eusten saiatu *behar* dugulako, gure ekintzak *arrazoizkoak* izango badira —horrela ez jokatzera *kas-karina* izan daiteke gure partetik; *arduragabea*, akaso—. Horrelako ebaluazioen muina zein den azaltzea ez da gauza erraza, eta azken ehun urteotan meta-etikan dabilzanek azertu eta ikertu dituzten auziak dira, adibidez, zer egiten dugun horrelako ebaluazioak egiten ditugunean, zer esaten dugun, zein gogo-egoera mota adierazten dugun horiekin, ea mundua nolabaitekoa izaten deskribatzen dugun, edota zer esan nahi ote duen horrelako ebaluazio bat egiten duen esaldi bat egiazkoa edo faltsua izateak. Ez gara auzi horietan sartuko (horietako gehienak azaletik edo zeharka aipatzen ditu Kirchin bere liburuan), baina suposa dezakegu, eztabaidan sartzeko asmorik gabe, ebaluazio bat egiten dugunean zentzuren batean «positiboa» edo «negatiboa» den jarrera bat adierazten dugula zerbaiti buruz (gauza, ekintza edo egoera bati buruz), eta saiatzen garela horiekin besteen ekintzak bideratzen (sarri besteek guk ontzat jotzen dugun moduan ekitea bilatzen dugu ebaluazioekin), eta ebaluazio horiek ere balio digutela ebaluatzen ditugun gauzen, ekintzen eta egoeren artean mailaketak egiteko.

Printzipioz, behintzat, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak horrelako hizketa-ekintza ebaluatiboak egiten ditugunean izaera ebaluatiboa daukaten konzeptuak adierazten ditugula. Berez ebaluatiboak diren adierazpenak daudela

---

<sup>1</sup> Lan hau Espainiako MINECOren (FFI2015-63719-P (MINECO/FEDER, UE)) eta Eusko Jaurlaritzaren (IT1032-16) ikerketarako dirulaguntza banari esker idatzi dut.

onartzen badugu, edota ebaluazioak egiteko bereziki aproposak direnak, zentzuzkoa da pentsatzea horrelako adierazpenak erabiltzen ditugunean berdin-berdin izaera ebaluatiboa daukaten kontzeptuak adierazten ditugula. Adibidez, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak badauzkagula ONA eta TXARRA<sup>2</sup> bezalako kontzeptuak, eta erabiltzen ditugula kontzeptu ebaluatibo horiek, besterik gabe, zerbait ona edo txarra dela irizten diogunean (gero horiek hitzez adierazi ala ez). Gauza argia dirudi ona eta txarra kontzeptu ebaluatiboak direla, baina, seguru asko, gauza bera esan dezakegu OKER, GAIZTO, ZUZEN, INJUSTU, EDER, POLIT, ITSUSI, NARRAS, ONDRADU, AUSART edo JATOR bezalako buruz. Horiei, gainera, honakoak gehitzen dizkie Kirchinek: ATSEGIN, KRUDEL, DOTORE, BIKAIN, ONARGARRI, ENPATIKO, ABEGIKOR, ESKUZABAL, MAKABRO, JUSTIFIKATU, JAKINTSU, JELOS-KOR, BIHOZBERA, ARRUNT, LOTSAGABE, TENTAGARRI, SUSPERGARRI, KITSCH, ERRIDIKULO, PIKARO, ALFER, ANTAGONIKO, KORAPILATSU, ZAIL, TRANSZENDENTE, SINPLE, TXUNDIGARRI, GOZO eta DIABOLIKO. Kontzeptu horiei guztiei legezkiekeen adierazpen linguistikoak, noski, erabil ditzakegu ebaluazioak egiteko. Eta kontzeptu horiek guztiek, gainera, badaukate berezko izaera ebaluatibo bat—edo horrela defendatuko lukete batzuek, behintzat—.

Azken hamarkadetan meta-etikako auzietan dabiltzan autore gehien iritzi<sup>3</sup>, posible da halako izaera ebaluatiboa daukaten kontzeptuak bi mulztotan banatzea: alde batetik, kontzeptu ebaluatibo *arinak* genituzke eta, bestetik, kontzeptu ebaluatibo *trinkoak*<sup>4</sup>. Kontzeptu arin paradigmaticoak ON eta TXAR lirakeke, eta, agian, horien artean sar ditzakegu honako hauek ere: ZUZEN, OKER, EDER, ITSUSI, BIKAIN, EGOKI eta antzeko beste batzuk —eztabaidagarria da ea aipatutako kontzeptu horietako batzuk arinak edo trinkoak ote diren, baina tira—. Kontzeptu trinko paradigmaticoak lirakeke ONDRADU, AUSART, ATSEGIN, KRUDEL, ESKUZABAL, JAKINTSU, BIHOZBERA, ALFER eta KOLDAR.

Eztabaidagarria da zein den kontzeptu arinen eta trinkoen arteko desberdintasuna (eztabaidagarria eta eztabaidatua: horren ingurukoak dira Kirchinek bere liburuan lantzen dituen auzi batzuk). Printzipioz, eta oraingoz eztabaidetan sartzeko asmorik gabe, nahiko ohikoa da esatea kontzeptu arinek izaera guztiz ebaluatiboa daukatela, eta kontzeptu trinkoek izaera ebaluatiboa eta deskriptiboa konbinatzen dituztela. Norbait ona dela badiogu, adibidez, begi-bistakoa da norbait horren ebaluazio positiboa egiten ari garela; baina, horretaz aparte, ez dugu nolakoa den esaten: izan daiteke ona ausarta delako, edo bihozbera, edo eskuzabala. Bestalde, norbait koldarra dela ba-

<sup>2</sup> Kirchinek berak eta beste autore askok jarraitzen dioten konbentzio bati jarraituz, hizki larri txikiak erabiliko ditut kontzeptuei erreferentzia egiteko. Honela: Pintto zakur bat da, 'Pintto' zakur baten izena, eta PINTTO kontzeptu bat.

<sup>3</sup> Ikus, adibidez: Williams (1985), Blackburn (1992), Gibbard (1992), Dancy (1995), Elstein eta Hurka (2009) eta Smith (2013).

<sup>4</sup> «*Thin* and *thick* evaluative concepts», ingelesez. Auzi hauen inguruan euskaraz aurrekaririk ezagutu ez, eta «arin» eta «trinko»ren alde egin dut testu labur honetan.

diogu, ari gara (suposatzen da) norbait hori negatiboki ebaluatzen, baina, gainera, deskribatzen dugu norbait hori nolabaitekoa izaten, eta horrekin azaltzen dugu, hein batean, zergatik merezi duen gure ebaluazio negatiboa. Beste aukera bat da esatea kontzeptu arinak orokorrak direla, eta, trinkoak, zehatzagoak (Kirchinek, adibidez, horrelako zerbait proposatzen du). Zerbait ona dela diogunean deskribatzen dugu nolabaitekoa izaten (ona), eta, aldi berean, egiten dugu gauza horren ebaluazio bat. Kontzeptu trinko bat erabili eta norbait, adibidez, eskuzabala dela diogunean, deskribatzen dugu norbait hori nolabaitekoa izaten (onura propioak alde batera utzi eta besteen mesedetan jokatzen du), eta, aldi berean, egiten dugu norbait horren ebaluazio bat. Gauza da bigarren deskribapena lehenengoa baino zehatzagoa dela, modu konkretuagoan deskribatzen baitu zein modutan den ona deskribapenaren objektua.

Kontzeptu trinkoei buruzkoa da Kirchinen *Thick Evaluation*. Izan ere, kontzeptu trinkoek, agian, balio dezakete auzi meta-etiko zaharragoen inguruan ideia eta ikuskera berriak planteatzeko<sup>5</sup>, eta kontzeptu arin/trinko dikotomiak eta kontzeptu trinkoek eurek planteatzen dituzte meta-etikan ari denarentzat interesgarriak diren auziak. Adibidez, behin kontzeptu arinen eta trinkoen arteko bereizketa eginda, galde dezakegu ea arinek lehenetsun kontzeptual edo esplikatiborik agertzen duten trinkoei dagokienez (aurre-rago aipatuko ditugun separazionistek defendatuko luketen moduan), edo, alderantziz, trinkoak diren arinekiko halako lehenetsuna erakusten dutenak (Williams (1985)ek proposatzen zuen moduan), edota halako lehenetsunik badagoela suposatzeak zentzurik ere ba ote daukan (Kirchinek ezetz erantzuten du bere liburuan).

Liburuak paseo txiki bat planteatzen du auzi horietan barna, kontzeptu trinkoen izaeraren inguruan planteatu izan diren proposamen batzuk zehazki deskribatuz eta aztertuz, auzi horien inguruan sarri apunte solteak eginez (gero bere proposamena izango denari forma ematen laguntzen diotenak). Liburuak bi zatitan banatuta dago, gainera: lehenengo zatia Kirchinek ukatzen duen separazionismoari eskainia dago, eta, bigarrenean, Kirchinek bere proposamen anti-separazionista deskribatu eta defendatzen du, *Ikerketetako* Wittgensteinen ideien eraginpean. Ez da liburu irakurterraza; gai horiek ondo ezagutzen ez dituenarentzat, behintzat. Kirchinek gai eta auzi ugari eztabaidatzen du ez hainbeste orritan, jauziak egiten ditu gai batetik bestera, ohar batzuk egiten ditu gero horietara itzuliko dela esateko, horiek guztiz garatu gabe, eta berriro gai horiei heltzen dienean sarri ez du gauza handirik gehitzen, eta lehenago egindako ohar azalekoetan oinarritzen da bere proposamen propioari forma emateko —iruditzen zait azken horretan erdibidean geratzen dela: sasi-arazo filosofikoak ekidite aldera filosofoak ez duela saiatu

<sup>5</sup> Williams (1985)en iritziz, adibidez, kontzeptu trinkoek iradokitzen dute korrante meta-etiko askok emantzat jo duten gertakari/balio (*fact/value*, ingelesez) dikotomia ez dela hain argia.

behar azalpenik behar ez duenari azalpena ematen dioen mantra wittgensteindarra jarraitzeagatik-edo, Kirchinek ez duela bere proposamen propioari buruz espero behar genukeena bezainbeste esaten—. Nolanahi ere, gaiok ondo ezagutzen ez dituenarentzat liburuak badauka interesik, kontzeptu trinkoen inguruan izan diren eztabaiden inguruko panoramika orokorra osatzeko bai balio baitu, nahiz eta irakurle ez hain abila batzuetan eztabaidetan galduko den, edota gaiak ondo ulertzeko behar dituen azalpen guztiak ez zaizkion emango liburuan. Datozen paragrafootan, Kirchinek bere liburuan eztabaidatzen dituen auzi zentralen laburpena egiten saiaturiko naiz, azaletik, gai batetik bestera jauziak egin eta gai batzuk behar bezainbeste garatu gabe, horrek *Thick Evaluation* honen panoramika orokor bat eskaintzeko balioko duelakoan.

Liburua separazionisten eta anti-separazionisten arteko eztabaidari buruzkoa da, batez ere—liburuan aipatzen diren beste gai gehienak eztabaida horrekin lotuta planteatzen dira gehienetan (ez beti)—. Separazionisten arabera, kontzeptu trinkoek badaukate *osagai* deskriptibo bat, eta baita *osagai* ebaluatibo bat ere. Kontzeptu trinkoek ebaluazioak egiteko balio dute (badaukate, beraz, ebaluatiboa den zerbait), baina, gainera, ebaluazio hori ezaugarri batzuen oinarrian egiten dute: besteari laguntzeko prest dagoelako da ona eskuzabala, bestearen minarekin disfrutatzen duelako da txarra krudela. Ebaluazio hori oinarritzen duten ezaugarri horiek identifikatzen dituen deskribapena ere, beraz, izango da kontzeptu trinkoaren parte. Anti-separazionistak, berriz, ukatu egiten du kontzeptu trinkoen osagaiak horrela bereiz ditzakegunik, ukatu egiten du trinkoan ebaluatiboa dena eta deskriptiboa dena horrela isola ditzakegunik. Izan ere, anti-separazionistari kontzeptu trinkoen *osagai* buruz hitz egitea bera deseroso egiten zaio: kontzeptu trinkoek ez dauzkate horrelako osagai edo zatiak, ezin dira oinarritzekoagoak diren elementuetan banatu. Anti-separazionisten arabera, egia da kontzeptu trinkoek badaukatela izaera edo dimentsio ebaluatiboa, eta berdin da egia badaukatela izaera edo dimentsio deskriptiboa, baina horrek ez du esan nahi kontzeptu trinkoak guztiz ebaluatiboa eta guztiz deskriptiboa diren zati banaz osatuta egongo direnik. Alegia, anti-separazionistak ukatu egingo luke kontzeptu trinko bat guztiz ebaluatiboa den kontzeptu arin bat eta guztiz deskriptiboa den kontzeptu bat konbinatetik sortzen denik (beti). Esan bezala, liburuaren lehenengo zatia separazionismoari eskainia dago: Kirchinek posizio hori deskribatzen du, bestelako desberdinketa batzuekin lotzen du, eta jarrera horri planteatu izan zaizkion arazo batzuk aipatzen ditu, batzuk benetakoa arazoak direla defendatuz eta beste batzuk ez daudela ondo motibatuta seinalatuz (eta azken hori kuriosoa da, aurrerago aipatuko dugun moduan separazionismoari planteatu izan zaion arazo nagusia aurreiritzi anti-separazionista bat dela esaten baitu Kirchin anti-separazionistak).

Liburuaren lehenengo kapituluak sarrera lanak egiten ditu, eta auzi horiek aurkezten dira bertan, oso orokorki, eta liburuaren nondik norakoak

zein izango diren aipatzen da. Bigarren kapitulua separazionismoari eskaintzen dio, honen oinarritzko ideia zertan datzan azaltzen du, eta separazionismo «sinplearen» eta «konplexuaren» artean bereizten du. Kirchinek dioenez, separazionistak esaten du kontzeptu trinko baten osagai ebaluatiboa eta deskriptiboa ulergarriak direla beren horretan, kontzeptu trinkora jo gabe (ez alderantziz), eta osagai ebaluatiboa guztiz ebaluatiboa dela, guztiz arina den kontzeptu baten baliokidea dela. Hartu ESKUZABAL, adibidez. Pentsa daiteke kontzeptu trinko bat dela. Separazionismoaren arabera, kontzeptu hori bana dezakegu elementu guztiz ebaluatibo eta guztiz deskriptiboetan. Alde batetik, egongo da bere osagai deskriptiboaren baliokidea izango den kontzeptu deskriptibo bat (ONURA PROPIOA ALDE BATERA UTZI ETA BESTEAREN ALDE EGITEKO PREST DAGOENA bezalako kontzeptu deskriptibo bat, adibidez). Bestetik, bere osagai ebaluatiboa guztiz ebaluatiboa litzateke, kontzeptu arin batekin adierazgarria, Kirchinek PRO eta CON kontzeptu arinekin identifikatzen duena —PRO zerbaiten aldeko kontzeptua izango litzateke, zerbaiten ebaluazio positibo huts bat, eta CON zerbaiten ebaluazio negatibo hutsa egiten duen kontzeptua—. Kontzeptu deskriptibo eta ebaluatibo horiek halako lehentasuna daukate ESKUZABAL kontzeptuarekin alderatuta; izan ere, gerta liteke subjektu batek kontzeptu horiek edukitzea ESKUZABAL kontzeptua eduki gabe, baina kontzeptu horietako bat ez daukanak ez du ESKUZABAL kontzeptua edukiko, eta erraza da ikusten uler daitekeela ESKUZABAL kontzeptu ebaluatibo eta deskriptiboen arteko konbinazioaren emaitza bezala.

Kapituluan Kirchinek separazionismo sinplearen eta konplexuaren artean bereizten du, desberdintzen ditu bi separazionismo konplexu mota, eta aipatzen ditu separazionismo sinplearen eta konplexuaren artean aurki ditzakegun aukerak, horien inguruko ohar batzuk eginez. Aipatzen dituen auzi batzuk interesgarriak dira (interesgarria da, adibidez, separazionistak arazoak dauzkala azaltzeko justizia distributiboari buruz iritzi desberdinak daukatekenez JUSTU kontzeptu trinko berbera nola izan dezaketean, kontzeptu horren osagai deskriptiboa desberdin identifikatzen baitute), eta horiei denei ia hogeit hamarri eskaintzen badizkie ere, liburuan aurrerago ez ditu ia aipatu ere egiten.

Separazionismoaren alde argudio desberdinak eman daitezke, baina gehienek oinarritzko puntu berbera esplotatzen omen dute: eduki ebaluatiboak eta deskriptiboak izaera oso desberdina daukate. Kontzeptu trinkoek hain desberdinak diren edukiak batzen dituztenez, badirudi halako edukien konbinaziotik sortu beharko direla; posible izango dela beti, maila abstraktuan bada ere, kontzeptu trinkoari ebaluatiboa zaiona isolatzea kontzeptu berari deskriptibo zaionetik. Adibidez, ulertzekoa da jarrera anti-kognitibistek separazionismoaren alde egitea. Jarrera ebaluatiboak ez badira uste eta pentsamenduen gisako egoera kognitiboak, gertuago badaude, adibidez, gure emozioetatik, zaila izango da ulertzen nolatan izan ditzakegun izaera bikoitza duten kontzeptuak, ezin baditugu aspektu deskriptibo kognitiboa eta aspektu ebaluatibo ez-kognitiboa bata bestearengandik bereizi. Harritzekoa

bada ere, separazionismoaren eta anti-kognitibismoaren arteko lotura garrantzitsu hau Kirchinek ez du separazionismoari eskainitako bigarren atal honetan egiten, seigarren atalean baizik —horrelako jauziak dira, askotan, liburuaren irakurketa zailtzen dutenak—.

Hirugarren kapituluaren separazionismo/anti-separazionismo eztabaida ulertzeko beste modu bat planteatzen du, erlazio kontzeptualen inguruko bi eredu desberdinetan oinarrituta. Horietatik lehenengoa *genero-espezie* eredu litzateke, Kirchinek separazionismoarekin identifikatzen duena, eta, seguru asko, autore gehienek inplizituki onartzen dutena. Eredu honen arabera, genero-kontzeptuak kontzeptu orokorrak lirateke; espezie-kontzeptuak, aldiz, kontzeptu espezifikagoak: espezie-kontzeptu bakoitzak berezkoa zaion eta gainontzeko espezie-kontzeptuetatik desberdintzen duen *differentia* bat izango luke lotuta. Taxonomia biologikoez jarraitu ohi duten ereduak ei da. Kirchinek dioenez, separazionismoa ez da kontzeptu arinen eta trinkoen arteko erlazioa eredu honen arabera ulertzea besterik. Horrela, kontzeptu arinak (ON, TXAR, PRO edo CON bezalakoak) genero-kontzeptuak lirateke, eta, trinkoak, *differentien* bitartez zehazten diren espezie-kontzeptuak. Bigarren eredu determinagarri-determinatu eredu litzateke. Eredu honek ere suposatzen du kontzeptu batzuk besteak baino orokorragoak direla, baina ez du suposatzen batzuk besteak baino lehenagokoak direnik, edota kontzeptu espezifikokoak identifikatzen dituzten *differentia* independenteak badaudenik. Koloreak jartzen ditu adibidetzat: KOLORE kontzeptua URDIN baino orokorragoa da, baina ez dirudi KOLORE bestelako kolore kontzeptuez independenteki uler dezakegunik, edota URDIN gainontzeko koloreetatik desberdinduko duen definizio independenterik badaukagunik.

Halaber, kapitulu honetan bertan liburuan zentrala den ideia bat aipatzen du, Kirchinen argudio eta ohar askori sostengua ematen diena: *malgutasun ebaluatiboa* —Kirchinen ikuspegian hain paper garrantzitsua jokatuta, arraroa da ideia honi berari kapitulu aparte bat ez eskaintzea, eta honen ingurukoak liburuan zehar zabaldua egotea, bere jarrera gehiago motibatu beharko lukeelako sententzioarekin utziz irakurlea (edo irakurle hau, behintzat)—. Malgutasun ebaluatiboaren arabera, kontzeptu ebaluatibo bat eta berbera erabil dezakegu, testuinguru eta baldintza desberdinetan, ebaluazio desberdinak egiteko. Adibidez, Kirchinek dioenez, DOTORE kontzeptu trinko bat da, baina erabil daiteke, batzuetan, ebaluazio positiboak egiteko; eta ebaluazio negatiboak egiteko, beste batzuetan. Kirchinek emantzat jotzen du malgutasun ebaluatiboa gertatzen dela, eta separazionismoak arazoak dauzka kontzeptu trinkoen malgutasun hori azaltzeko. Izan ere, separazionismoaren arabera, kontzeptu trinkoek badaukate guztiz ebaluatiboa den osagai bat, eta, kontzeptualki behintzat, osagai ebaluatibo hori kontzeptu trinkoa baino lehenagokoa bada, zaila da ulertzen nola alda daitekeen osagai horixe bera kontzeptuaren erabilera batetik bestera, horrekin kontzeptu trinko osoa aldatu gabe.

Egia da separazionismoak arazoak dauzkala malgutasun ebaluatiboa azaltzeko, baina, noski, separazionistak uka dezake kontzeptu trinkoak zentzu honetan malguak direnik, eta Kirchinek aipatzen du (aipatu) hori. Separazionistak esan dezake, adibidez, ‘dotore’ hitza ebaluazio positibo nahiz negatiboak egiteko erabil badezakegu, erabilera mota bakoitzaren atzean kontzeptu trinko desberdinak egongo direlako dela (DOTORE+ eta DOTORE-, adibidez); edo, errazago, esan dezake, kontzeptu trinko bakarra egonik ere erabilera desberdin horien oinarrian, kontrako ebaluazioak pragmatikoki inplikatzeko direla (adibidez, DOTORE beti izango litzateke kontzeptu trinko positibo bat, baina erabil dezakegu testuinguru batzuetan pragmatikoki ebaluazio negatiboak komunikatzeko). Kirchinek ez du gehiegi esaten honen inguruan. Besterik gabe, esaten du badirudiela adierazpen trinkoak ebaluazio desberdinak egiteko erabiltzen ditugula, eta interpretaziorik sinpleena malgutasun ebaluatiboa gertatzen dela suposatzea dela; malgutasun ebaluatiboa gertatzen dela ukatzen duenak argudiatu beharko duela bere posizioaren alde. Onar daiteke, agian, hori horrela dela (zalantza handiak dauzkat, baina tira); baina, hori onartuta ere, malgutasun ebaluatiboa separazionismoaren kontrako argudio bat eraikitzeko erabili nahi bada, argudio hori proposatu nahi duenak edukiko du frogaren ardura: hark argudiatu beharko du benetan gertatzen dela malgutasun ebaluatiboa, eta separazionistak horri eman dakizkiokeen erantzunek badaukatela beren kostua. Kirchinek ez du hori egiten liburuan.

Are gehiago, egia bada ustezko adierazpen trinkoak modu malgu horretan erabil ditzakegula, askori burura etorriko zaigun lehenengo aukera ez da separazionismoak arazoak dauzkala pentsatzea, kontzeptu trinkorik bada goela ukatzea baizik (edo trinkotzat jotzen den kontzeptu asko behintzat ez dela ez trinko eta ez ebaluatibo). Izan ere, anti-separazionismoa onartuta ere, ez dago argi nolatan izan dezakeen kontzeptu ebaluatibo batek batzuetan karga ebaluatibo positiboa eta, beste batzuetan, karga ebaluatibo negatiboa —Kirchinek esaten du zerbait honi buruz, baina liburu erdi aurrerago, seigarren kapitulan, eta, aurrerago esango dudanez, zalantza handiak dauzkat nahikoa esaten ote duen honi buruz—. Beraz, agian malgutasunak iradokitzen du ustezko kontzeptu trinkoek ez daukatela *berez* izaera ebaluatiboa, eta testuinguruaren arabera erabil ditzakegula kontzeptu horiek adierazten dituzten adierazpenak horrelako ebaluazioak egiteko (nahiz eta ebaluazio horiek ez adierazi semantikoki). Horrelako zerbait esaten du Väyrynen (2013)k, baina Kirchinek ez ditu horiek liburuaren parte honetan aipatzen (pena da), liburu erdi baino gehiago aurrerago baizik, zazpigarren kapitulan. Bueltatuko naiz, beraz, puntu honetara aurrerago.

Laugarren kapitulan kontzeptu arinak (edo, hobe, kontzeptu trinkoen osagai ebaluatiboak) nolakoak diren azaltzea separazionistarentzat arazotsua izan daitekeela argudiatzen du Kirchinek. Separazionismoaren puntu garrantzitsu bat da kontzeptu trinkoen osagai ebaluatiboa *guztiz* ebaluatiboa dela, ez daukala elementu deskriptiborik. Gauza da, hori horrela izanda, separa-

zionistak arazoak dauzkala kontzeptu arin desberdinak nola izan ditzakegun azaltzeko. Hartu, adibidez, ON eta ZUZEN, ustez arinak eta ustez positiboak diren bi kontzeptu. Kontzeptu horiek desberdinak dira, Kirchinek dioenez, desberdina baita norbaitek ondo jokatzeko duela esatea eta zuzen jokatzeko duela esatea; ekintza horiek desberdin deskribatzen omen ditugu. Baina, ON eta ZUZEN kontzeptuek elementu deskriptiborik ez badaukate, zaila da esaten zein modutan deskribatzen dituzten desberdin ekintza horiek.

Noski, hori ez da arazo separazionistarentzat bakarrik, baizik eta kontzeptu arin eta trinkoen artean bereizi eta arinek izaera deskriptiborik ez daukatela dioten ororentzat. Horregatik, Kirchinek ukatu egingo du kontzeptu arin eta trinkoen arteko desberdinketa horrela egin dezakegunik; ukatu egiten du kontzeptu arinak guztiz ebaluatiboak direla eta kontzeptu trinkoek izaera ebaluatiboa eta deskriptiboa konbinatzen dituztela, nolabait. Kirchinek proposatzen duena da, alde batetik, badaudela beste kontzeptu arin batzuk baino arinagoak edo trinkoagoak diren kontzeptu arinak eta, berdin, badaudela beste kontzeptu trinko batzuk baino arinagoak edo trinkoagoak diren kontzeptu trinkoak. Kontzeptu ebaluatiboen izaera arin edo trinkoak zerikusi gehiago dauka kontzeptu orokorragoa edo zehatzagoa izatearekin elementu ebaluatibo eta deskriptiboak konbinatzearekin baino (izan ere, Kirchinentzat, kontzeptu arinak eta trinkoak denak dira berdin ebaluatiboak, eta, deskriptiboak ere, denak dira zentzuren batean behintzat deskriptiboak). Adibidez, esan dugunez, ON eta ZUZEN, biak dira kontzeptu arinak, baina, Kirchinek dioenez, ON ZUZEN baino orokorragoa da<sup>6</sup> —eta, horrela, *arinagoa* ere bai—. Berdintsu gertatzen da ABEGITSU (*kind*) eta ENPATIKO (*empathetic*) kontzeptu trinkoekin: lehenengoa orokorragoa eta arinagoa da, Kirchini kasu egingo badiogu —ez dut hain argi ikusten, baina tira—.

Horrela, kontzeptu arinen eta trinkoen arteko desberdintasuna ez da batzuk guztiz ebaluatiboak direla eta besteak deskriptiboak eta ebaluatiboak. Aurrena, arinak trinkoak baino orokorragoak dira —nolanahi ere, hau gradu kontua da, eta kontzeptu arinak eta trinkoak orokortasunaren arabera mailakatzen baditugu ez dugu horien arteko hausturarik ikusiko—. Kontzeptu arinak trinkoetatik desberdintzen dituena da, Kirchinen arabera, objektu bat deskribatzeko kontzeptu arin bat erabiltzen dugunean objektu hori beste objektuekin konparazioan *sailkatzen* dugula, eta hori ez dela derrigorrezkoa kontzeptu trinkoak erabiltzen ditugunean:

---

<sup>6</sup> *Good* eta *right* ingelesez; ideia da zerbait «good» dela diogunean positiboki ebaluatzen dugula, baina irekita uzten dugula egon daitezkeela berdin onak diren aukera desberdinak. Zerbait «right» dela diogunean, berdin ebaluatzen dugu positiboki, baina ukatu egiten dugu berdin ona den beste aukerarik egon daitekeenik. Ez dut argi ikusten hori horrela ote den, baina jaiotzez ingelesez dakienari sinetsi beharko diogu. 'Good' eta 'right' 'on' eta 'zuzen' bezala itzultzen ditugunean Kirchinek aipatzen dituen desberdintasun horiek mantentzen ote diren, hor jada zalantza handiak dauzkat, baina izan daiteke itzulpenean galtzen den desberdintasun bat.



Kontzeptu trinkoek gauza partikular batzuekiko joera mota partikular bat hartzen dute, eta izan daitezke joera horietako mota zehatzak, eta joera horiek ez dute eskatzen guk konparazioak egitea beste gauza batzuekin eta horien ezaugarritzeekin, edo beste auzi batzuekin. Bestalde, kontzeptu arinek gauza partikular batzuk hautatzen dituztenean, edota horiekiko joera partikular bat direnean, onespen soil batek eman dezakeen informazioa baino gehiago eman diezagukete; baina, hala bada, hori lortzen dute beste gauza batzuekin eta horien ezaugarritzeekin egindako konparazio baten bitartez, edo kontzeptuaren jomuga bera ez den beste zerbaitekin konparazioa eginez. (Kirchin 2017: 64)<sup>7</sup>

Desberdina da zerbait ona dela edo zuzena dela esatea, horiek esatean zerbait hori besteekin konparazioan desberdin sailkatzen dugulako —horretan datza kontzeptu arinen izaera deskriptiboa, halakorik badago—. Norbait eskuzabala dela esaten dugunean, berriz, ez dugu besteekin konparatzen, norbait horretaz egiten dugun deskribapena ez da besteen konparazioaren mendeko. Kirchinek oso ondo azaltzen ez duena da zergatik ezin duen separazionistak gauza oso antzekoa esan: kontzeptu arinak erabiltzen ditugunean gauzekiko daukagun jarrera adierazten dugula, baina hala egitean gai garela beste objektu batzuekin konparazioak egiteko. Kontzeptu arinak ebaluatiboak dira guztiz, ez daukate berez izaera deskriptiborik, baina erabil ditza-kegu halako kontzeptuak adierazten dituzten hitzak horrelako sailkapenak egiteko. Anti-separazionistak horrelakoak esan baditzake kontzeptu arin eta trinkoen arteko desberdintasunari eutsiz, ez dut ikusten zergatik ezin duen separazionistak antzeko zerbait esan.

Bosgarren kapitulua argudio anti-separazionista ezagunenari eskaintzen dio: *deskorapilatze*<sup>8</sup> argudioari. Argudio hau anti-kognitibista ere baden separazionistari planteatu izan zaio —esan dugun moduan, ohikoa da kognitibistak anti-separazionistak izatea, eta badirudi anti-kognitibistak separazionistak izatera derrigortuta daudela—. Separazionistek esan ohi dute (batez ere, anti-kognitibistak ere badirenean) kontzeptu trinko baten osagai deskriptiboa nahikoa dela kontzeptuaren hedadura determinatzeko —eta, gero, kontzeptuaren osagai ebaluatiboak hedadura horretan erortzen denarekiko jarrera ebaluatibo bat adierazten duela—. *Deskorapilatze* argudioak esaten du, besterik gabe, hori ezin dela egin, izaera ebaluatiborik ez daukan deskribapen bat ez dela nahikoa izango JATOR, ABEGIKOR edo KRUEDEL bezalako kontzeptuen

<sup>7</sup> «Thick concepts pick out certain sorts of liking towards certain things and they carry or can be specific sorts of those likings where such likings are not dependent on us drawing comparisons with other things and their characterizations, or on other matters. On the other hand, when thin concepts pick out or are likings towards certain things, they may give us more information about the thing than a bare approval will, but if so this is achieved only through some comparison with other things and their characterizations or some other matter not to do with the target things themselves.» (Kirchin 2017: 64)

<sup>8</sup> *Disentangle* ingelesez, korapilo bat-edo askatzea.

hedadura determinatzeko, elementu ebaluatiboa kanpoan uzten badugu ari garela hedadura determinatu ahal izateko beharrezkoa den zerbait kanpoan uzten. Ideia da kontzeptu trinkoak *formagabeak* (*shapeless*) direla euren bir-formulatze ez-ebaluatiboekiko:

Antza, gure kontzeptu ebaluatiboak formagabeak dira kontzeptu eta ideia deskriptiboekiko. Alegia, abegikortasuna osatzen duten ezaugarri deskriptiboan multzo guztiek komun daukaten patroia bilatzen hasiko bagina, gauzak ikuspuntu etiko edo ebaluatibo batetik ikusten saiatu gabe (edota ikuspuntu etiko edo ebaluatibo zuzenetik ikusten saiatu gabe), ez ginateke gai izango hori ikusteko. (...) ideia da [ABEGIKORTASUN kontzeptuaren] ezaugarritze [deskriptiboa] ezin dela osatu. (Kirchin 2017: 84)<sup>9</sup>

Kuriosoa dena da, Kirchin anti-separazionista izanda, eta deskorapilatze argudioa separazionismoaren aurka planteatzen den argudio ohikoena izanda, bere ustez argudioak ez duela nahi bezainbeste frogatzen. Bai, egia da zaila izango dela kontzeptu trinko baten hedadura termino guztiz deskriptiboetan determinatzea, baina ez dago argi hori ezinezkoa izango ote den; kontzeptu trinko horren hedaduran erortzen diren elementu guztien deskribapen disjuntibo bat ematea, adibidez, ezinezkoa ote den. Kirchinek dioenez, deskorapilatze argudioa ez da intuizio (edo aurreiritzi) anti-separazionista besterik, argudio gisan planteatua. Besterik gabe, emantzat jotzen du kontzeptu trinkoak ezin direla deskorapilatu. Baina, hori, auzia separazionistaren kontra aurrez juzgatzea da: «(...) formagabetasunaren hipotesia benetan ez da hasierako susmo anti-separazionista (eztabaidagarriaren) adierazpena besterik. Hemen, ziur denez, ez daukagu *argudio* bat» (Kirchin 2017: 97)<sup>10</sup>.

Lehen esan bezala, liburuaren bigarren zatia (seigarren kapitulutik bederatzigarrenera) bere proposamen propioari eskaintzen dio Kirchinek. Batez ere seigarren eta zazpigarren kapituluetan ematen dio forma horri: seigarren kapituluaren horren ideia orokorrak aipatzen ditu, horiek Williams (1985) eta Ryle (1968)ren proposamenek nola inspiratzen dituzten azalduz; zazpigarren kapituluaren, Väyrynen (2013)ren ideiekin konparazioa eginez, zerbait gehiago esaten du bere jarrera propioari buruz. Bere proposamena nahiko azaletik aurkezten du, ez du argudio gehiegirik ematen, gehiago egiten du kontzeptu ebaluatiboan eta kontzeptu trinkoen adibide partikularretan oinarrituta lezio

<sup>9</sup> «Supposedly, our evaluative concepts are shapeless with respect to descriptive concepts and ideas. That is, if we were to try to find a pattern between all of the sets of descriptive features that constitute kindness, without trying to view things from an ethical or an evaluative point of view (or the correct ethical or evaluative point of view), we would not be able to see it. (...) the idea (...) is that the [descriptive] characterization [of KINDNESS] can never be completed.» (Kirchin 2017: 84).

<sup>10</sup> «... the shapelessness hypothesis is really only an expression of the (controversial) initial anti-separationist hunch. We certainly do not have an *argument* here.» (Kirchin 2017: 97)

orokor batzuk atera (seguru asko, bigarren Wittgensteinen ideia metafilosofikoei eraginda), eta zalantzak geratzen zaizkit zein den Kirchinaren proposamen propioaren izaera zehatza (ez du xehetasun handirik ematen), eta zein diren besteen ideiekin konparatuta azaltzen dituen abantailak. Irakurleari geratzen zaion sentsazioa da (edo, behintzat, irakurle honi) Kirchinek nahikoa lan hartzen duela besteen ideiek dauzkaten arazoak azaltzen, baina gero ez dituela bere ideia propioak nahikoa garatzen, horiek berdin aztertutak izan ahal daitezken —berriz, seguru asko bigarren Wittgensteinen eragina izan daiteke hau ere (edo horrela egingo genuke protesta batzuek)—.

Labur, Kirchinek anti-separazionismoaren alde egiten du, kontzeptu trinkoek izaera ebaluatiboa daukatela dio (kontzeptu ebaluatibo arinek bezalaxe), eta kontzeptu trinkoen eta arinen arteko muga eta kontzeptu ebaluatiboaren eta ez ebaluatiboaren arteko muga lausoak direla proposatzen du; alegia, kontzeptu ugari dagoela sailkapen horietan mugaren zein aldera erortzen diren argi ez dagoena. Liberalismoaren alde egiten du (erabil dezakegu kontzeptu bat eta berbera ebaluazio desberdinak egiteko), eta kontzeptu trinkoei izaera ebaluatiboa «esentziala» zaiela defendatzen du.

Kirchinek deskorapilatze argudioa eta horren gisakoak hartzen ditu abiapuntu seigarren kapituluan. Aipatu dugunez, ez du uste horrek separazionismoaren kontrako argudiotzat arrakastarik izango duenik. Baina argudioaren oinarrian dagoen intuizio anti-separazionistari heltzea proposatzen du: intuizio horri jarraitzen badiogu, eta kontzeptu trinkoak nola erabili ohi ditugun begiratzen badugu, errazago ikusiko dugu nolako den kontzeptu horien izaera, nahiz eta, akaso, horrekin separazionismoaren aurkako argudio behin betikorik lortu ez. Nolanahi ere, ez da zuzenean hasten horrekin, eta ez du zuzenean bere jarrera aurkezten. Lehenik, Williams (1985)en eta Ryle (1968)ren ideia batzuk eztabaidatzen ditu, horrekin pixkana bere jarrera positiborantz gerturatzeko. Williamsen ideia batzuen eragina badauka ere (kontzeptu arinak trinkoak baino orokorragoak dira), seguru asko Ryleren eragina da nabarrien Kirchinaren proposamenaren. Bere «The Thinking of Thought» artikuluan, Rylek «pentsamendu» etiketaren azpian sartu ohi ditugun gogo-egoerak eta ekintzak aztertzen ditu. Dioenez, horietako bakoitza modu desberdinetan deskriba dezakegu: modu zehatzagoan (trinkoago) edo orokorragoan (arinoago). Horiek denak kontuan hartzen baditugu, eta denei egokitu zaien deskribapen bat bilatzen badugu, seguru asko esan beharko dugu denak direla «pentsamenduak», eta «pentsamendu» etiketa hori izango da ziurrenik horiei denei eman dakiekeen deskribapen orokor edo arinena. Nolanahi ere, noski, horrek ez du esan nahi gogo-egoera partikular horietako bakoitzean posible izango denik pensamendu egiten dituen elementu edo osagai zehatz bat isolatzea, gogo-egoera partikular bakoitzari «pentsamendu-izaera» emango dion esentzia antzekoren bat-edo; besterik gabe, denak dira pensamendu adibideak, eta horietako bakoitza pensamendua dela esatea izan daiteke denei eman dakiekeen deskribapen orokor bakarra.

Kirchinek antzeko zerbait proposatzen du kontzeptu ebaluatiboentzat. Kontzeptu ebaluatibo guztiak (izan arinak edo trinkoak) dira horixe: ebaluatiboak. Kontzeptu horiek guztiak kontuan hartzen baditugu, beraz, ebaluatiboak direla izango da horiei buruz eman dezakegun deskribapen orokorra, *arinena*. Horrek ez du esan nahi kontzeptu ebaluatibo bakoitzaren kasuan posible izango denik bere osagai ebaluatiboa isolatzea (anti-separazionista da, beraz). Kontzeptu horietako bakoitzak izaera ebaluatibo hori modu desberdinean erakutsiko du, bere modu propioan izango da ebaluatiboa, eta horren arabera desberdindu dezakegu kontzeptu trinkoen eta arinen artean. Kontzeptua gero eta zehatzagoa izan, gero eta deskribapen zehatzagoak eman horien erabileraren bitartez, gero eta trinkoagoa izango da.

Rylek (eta Wittgensteinek) bezala, Kirchinek uste du kontzeptu mota bat ulertu nahi badugu mota horretako kontzeptuak nola erabiltzen ditugun *begiratu* beharko dugula, alde aurreko aurreiritziak alde batera utzita. Kontzeptu trinkoak zer diren ulertu nahi badugu, kontzeptu trinko desberdinen adibideak eman beharko ditugu, eta horiek nola erabiltzen ditugun ikusi, zertarako, zein funtzioekin, zein baldintzatan, eta nola. Eta hala hasten da, adibideak ematen (seigarren kapituluaren bigarren erdian, jada liburuaren bi herenak atzean utzi dituenen), horietatik lezio batzuk ondorioztatzeko —argudiaketa gehiegirik gehitu gabe—. Zalantzak diren kontzeptuak aipatzen ditu, batez ere: MAKABRO (*macabre*), ESAMES (*gossip*), edo LIMURTU (*cajole*), adibidez, eta baita kontzeptu epistemikoak ere: BERMEKO (*warranted*), JAKINTSU (*wise*) edo ERRELEBANTE (*relevant*). Horiek denak erabil ditzakegu zerbait positiboki edo negatiboki ebaluatzeko (edo erabil ditzakegu ebaluaziorik egin gabe), eta ebaluazioa egiterakoan deskribatzen dute nolakoa den jomugan duten objektu edo ekintza. Horregatik, dio Kirchinek, ez dago motibo handirik horiek kontzeptu trinkoen artean ez sartzeko. Halako adibideetatik (eta halako adibideak jarri eta ebaluatiboki erabil ditzakegula esan baino askoz gehiago ez du egiten) lezio batzuk ateratzen ditu Kirchinek kontzeptu trinkoen izaerari buruz.

*Liberalak* izan behar dugu kontzeptu ebaluatiboetarako buruz. Alegia, ikusi behar dugu erabil dezakegula kontzeptu bat eta berbera (badirudi MAKABRO dela Kirchinen adibide gogokoena) ebaluazio positiboak edo negatiboak egiteko, edo ebaluaziorik egin gabe. Halloween gauean kontatzen den istorio bat ona da makabroa bada, baina, agian, txarra, istorio berbera haur txikiegi kontatzen bazaie; era berean, agian deskriba ditzakegu Edward Goreyren marrazkiak aseptikoki (inolako ebaluaziorik egin gabe), makabroak direla esanez. Kontzeptu trinko bat eta berbera, beraz, erabil dezakegu karga ebaluatibo oso desberdinekin, eta berdin gertatzen da kontzeptu ebaluatibo ororekin, kontzeptu arinak barne —horri esaten dio Kirchinek *liberalismo* (kontzeptu arinei dagokionez ere liberalak izan behar genukeela heterodoxo samarra behintzat bada, eta zazpigarren kapitulura arte Kirchinek ez du ideia honen alde argudiatzen, Väyrynenen ideien kontra adibide bat ematen due-

nean)—. Begi-bistakoa da liberalismo hau oso gertu dagoela Kirchinek lehenago defendatu duen malgutasun ebaluatibotik (ez dut ulertzen zergatik ez duen termino horixe erabiltzen berriro hemen), eta, separazionistak arazoak daukanez liberala izateko, kontzeptu trinkoak nola erabiltzen ditugun begiratzen badugu, ikusiko dugu anti-separazionismoaren alde egin beharko genukeela.

Nola den posible ADORETSU edo KRUDEL bezalako kontzeptu bat «esentzialki» ebaluatiboa izatea, ia beti positiboa edo negatiboa den ebaluazio bat egiteko erabiltzea, ebaluazioa kontzeptuaren beraren izaeraren alderdi esentziala izatea, eta, halere, kontzeptua berdin erabili ahal izatea ebaluazio positiboak edo negatiboak egiteko edo ebaluaziorik egin gabe zerbait deskribatzeko; hori, Kirchinek, ez du azaltzen. Kontzeptu trinkoak nola erabiltzen ditugun begiratzen badugu, besterik gabe, ikusiko dugu liberalak izan beharko genukeela.

Noski, jarrera horrek zalantza handiak sor ditzake. Hain liberalak izan behar badugu, onartu behar badugu «esentzialki» ebaluatiboak diren kontzeptuek izan ditzaketela erabilera ez-ebaluatiboak, eta kontzeptu ebaluatiboen artean hasiera batean besterik gabe deskriptiboak diruditen kontzeptuak sartu behar baditugu, ez da erraza ikusten non egongo den kontzeptu ebaluatiboen eta ez-ebaluatiboen arteko muga:

Noski, hau onartuta, begi-bistakoa den erronka bat planteatuko zaigu. Nola bereiz dezakegu noiz den kontzeptu bat ebaluatiboa eta noiz ez? Pro eta con helburuekin erabiltzen den aldien kopuruagatik al da? Agian. Erabilera horiek kontzeptua ulertzeko daukagun moduan daukaten garrantziagatik al da? Seguru asko. Nire oharrak kontuan izanik ere, jo al ditzakegu BIHURRI eta ANTZEKO ebaluatibotzat? Hala egin behar genukeela deritzot. Baina hemen azpimarratu nahi dudana da halako sailkapenak kontzeptu-erabiltzaile helduen komunitate baten barnean egiten diren epai, eztabaida eta arrazoitzeen emaitza izango direla. (Kirchin 2017: 136)<sup>11</sup>

Kirchinen erantzuna nahikoa izatetik oso urruti dagoela esango nuke. Ez zait burura etortzen erabilera ebaluatiborik izan ezin dezakeen kontzepturik. Hartu, adibidez, BIKOITI: komunitate edo talde batek propietate matematikoei buruzko epai estetikoak egiten baditu, edo matematikak nik-ez-dakit-zein bide mistiko erakusten dizkigula pentsatzen duen sekta erlijiosoren bat ba-

---

<sup>11</sup> «Of course, one obvious challenge leaps out from this. How can we tell when a concept is evaluative and when it is not? Is it because of the number of times in which it is used with pro and con point? Perhaps. Is it because of the significance of those uses to how we understand the concept? Probably. Despite my comments can we really think of CONTORTED or SIMILAR as evaluative? I think we should. But my point here is that such classifications will be matters of judgement, debate, and reasoning across a community of mature concept users». (Kirchin 2017: 136)

dago, gauza argia da BIKOITI ebaluatiboki erabili ahal izango dutela, kantitate batzuk politik edo moralki onak direla esateko. Argi egotetik oso urruti dago BIKOITI hala erabiltzen duen talderik badago BIKOITI kontzeptu ebaluatibo trinkoa izango dela, eta bestela ez, eta ez dirudi BIKOITI horrela ebaluatiboki erabiltzen duen talde bateko kide den norbaiten BIKOITI kontzeptua eta geurea bi kontzeptu desberdin direnik (azken finean, propietate berberari erreferentzia egiteko erabiltzen dugu denok, eta erabil dezakete eurek modu ez-ebaluatiboan), eta zaila da onartzen, printzipioz behintzat, halako talderik existitu edo ez gure BIKOITI kontzeptua ebaluatiboa edo ez-ebaluatiboa izango dela. Eta horrelako galdera eta auziei «agian» eta «seguru asko» batzuekin erantzutea, eta esatea, besterik gabe, kontzeptu bat ebaluatiboa den edo ez hiztun-komunitate batek egiten duen sailkapen bat dela, egindako proposamenak daukan arazo bati ez erantzutea da. Egia da, ez ditugu kontzeptu ebaluatiboan eta ez-ebaluatiboan arteko muga argiak behar (agian horiek kontzeptu lausoak dira eta ez dago halako muga argirik), eta ez gara ebaluatiboa izateko baldintza beharrezko eta nahikoak eskatzen ari, baina kontzeptu ebaluatiboak ebaluazioak egiteko erabili ohi ditugun kontzeptuak direla esatea, agian, ezer ez esatetik gertu dago; are gehiago, ziurrenik edozein kontzeptuk ahalbidetzen duenean bera erabiliz ebaluazioak egitea. Zure helburua kontzeptu trinkoen eta kontzeptu ebaluatiboan izaerari buruz zerbait esatea bada, ebaluazioak egiteko erabil daitezkeela baino zertxobait gehiago esan beharko zenuke, eta ez zait iruditzen Kirchinek hori baino askoz gehiago esaten duenik:

Indar osoz sinesten dut ebaluazioa ezin dela beragandik desberdina litzatekeen gauza espezifiko bat edo batzuk bezala artikulatu (pro eta con jarrerak bezala, adibidez), horrekin karakterizazio esanguratsu bat eman. Kontzeptu bat ebaluatiboa izatea zer denari buruzko nire ikuskera positibo osoa da halako kontzeptuek funtzio ugari dauzkatela: goresteko eta kondenatzeko gaitasunak biltzen dituzte, eta jarrera positibo eta negatiboak adierazten dituzte, ziur (eta horrekin ekiteko arrazoiak eman eta motiba ditzakete), baina, halaber, eman ditzakete mundua nolakoa den dioten ikuskera espezifikoak, ez dutenak zertan mundua modu positibo edo negatibo batean aurkeztu. (...) Beraz, gaiarekin tematu eta zuzenean galdetuko balidate zer uste duzan direla kontzeptu ebaluatiboak, esango nuke funtsean ebaluatiboak diren kontzeptuak direla. (Kirchin 2017: 136-137)<sup>12</sup>

<sup>12</sup> «I strongly believe that evaluation cannot be articulated as a specific thing or things (such as pro and con stance) that can be treated as different from itself such that a meaningful characterization is produced. My whole, positive view of what it is for a concept to be evaluative is that such concepts have multi-various functions: they encompass the ability to praise and blame, and express positive and negative stances, certainly (and with that they can motivate and provide reasons for action), but they can also simply offer specific understandings of how the world is that do not have to cast the world in obviously positive and negative ways. (...) So, if put on the spot and asked what I think evaluative concepts are, I would say that they are fundamentally evaluative concepts». (Kirchin 2017: 136-137)

Ulertzen dut; ulertzen dut Kirchinek ez duela kontzeptu ebaluatiboen definiziorik eman nahi, ez duela uste halakorik eman daitekeenik, edota posible denik kontzeptu ebaluatibo guztiek komun izango luketen (eta izaera ebaluatibo hori emango liekeen) elementu, osagai edo dena delako bat isolatzea; baina, halere, bide errazetik ateratzen delako inpresioa daukat, ez diela begi-bistakoak diruditen arazoei erantzuten. Berririo: ez dakit nola esan dezakeen Kirchinek badaudela ebaluatiboak ez diren kontzeptuak, nire ustez behintzat ia edozein kontzeptu erabil baitezakegu, testuinguru egokian, ebaluazioak egiteko. Hori horrela izanda, ez dakit nola esan dezakeen kontzeptu trinkoak «esentzialki» ebaluatiboak direla (hala dio, termino horrekin), nahiz eta inolako ebaluaziorik egin gabe erabil ditzakegun, eta nahiz eta esentzialki ebaluatiboak ez diren kontzeptuak ere erabil ditzakegun ebaluazioak egiteko. Kontzeptuen artean halako desberdintasunak badaudela uste baduzu, saiatu behar duzu azaltzen zergatik diren kontzeptu batzuk esentzialki ebaluatiboak eta beste batzuk, ez; eta esentzialki ebaluatiboak diren kontzeptuak funtsean ebaluatiboak direla esatea eta esentzialki ebaluatiboak ez diren kontzeptuak ez direla funtsean ebaluatiboak esatea ezer ez esatetik gertu dago. Badirudi hasiera batetik Kirchinek argi duela kontzeptu batzuk ebaluatiboak direla (baina batzuek —Väyrynen (2013)k eta nik neuk— ez daukagu argi kontzeptu trinkoak berez ebaluatiboak direnik, eta Kirchinek berak esaten du normalean ez-ebaluatibotzat jotzen diren kontzeptu asko berak kontzeptu trinkoen artean sartuko lituzkeela), eta horien ezaugarri batzuk aipatu besterik ez du egiten, ebaluatiboak ez diren kontzeptuengandik desberdintzen dituen izaera ebaluatiboa dela esanez. Kirchinek ez du nahikoa esaten.<sup>13</sup>

Izan ere, Kirchinek berak esaten du kontzeptu ebaluatiboen eta ez-ebaluatiboen arteko muga ez dela batere zehatza —horixe da bere adibideetatik ateratzen duen bigarren lezioa—. Kontzeptu pila dago ez dagoena argi ea izaera ebaluatiboa duen ala ez. Berriz: ez dut uste hori denik Kirchinek daukan arazoa, baizik eta kontzeptu ebaluatibo eta ez-ebaluatiboen artean benetak bereizketarik badagoela nola azaldu dezakeen. Ez dut ikusten nola egon daitekeen kontzeptu bat, edozein gauza motak izan dezakeen edozein propietateri erreferentzia egiten diona, eta erabilera ebaluatiboak egitea ahalbidetzen ez duena. Hori horrela bada, ez dut ikusten nola esan dezakeen Kirchinek badagoela bereizketarik. Eta esaten du: bere ustez AULKI, HEGAZKIN, BOLIGRAFO edo ELEFANTE kontzeptu ez-ebaluatiboak dira —suposatzen dut behiak gurtzen dituzten hinduentzat BEHI kontzeptu ebaluatiboa izango dela,

<sup>13</sup> Iruditzen zait aipatutako azken-aurreko paragrafoa eta gero Kirchinek idazten duen lehenengo perpausa hemen jartzeko obligazio morala daukadala: «Eztabaida hau guztia —azpi-atal honetan eta, agian, liburu osoan— frustragarria izan daiteke irakurle batzuentzat.» [«All of this discussion—in this sub-section and perhaps the whole book— may be frustrating for some readers.» (Kirchin 2017: 136)]. Ba bai, hala da «irakurle batzuentzat».

eta zaila zait ikustea nola den posible, orduan, ELEFANTE ebaluatiboa ez izatea—. Are gehiago, Kirchinentzat kontzeptu trinkoak «esentzialki» ebaluatiboak dira, eta ebaluatiboak ez diren kontzeptuak, ba ez. Berritoki: ez dut ulertzen nola egin ditzakeen bereizketa hauek, arbitrarioak dirudite.

Seigarren kapitulu honetan Kirchinek aipatzen ditu beste pare bat gauza kontzeptu trinkoen inguruan, baina jo dezadan zazpigarren kapitulura, bertan Kirchinek azaltzen ari naizen zalantzekin loturak dauzkatenak eztabaiatzen ditu eta. Zazpigarren kapitulu bere posizioa Väyrynen (2013)renarekin alderatzen du, eta azken horren kontra argudiatzen du. Interesatzen zait eztabaida, nire susmo eta zalantzak Väyrynenen hitzetan aurki ditzakedala iruditzen zaidalako. Väyrynen (2013)k defendatzen du autore gehienek onartzen dituztenak baino kontzeptu ebaluatibo gutxiago dagoela: kontzeptu arinak «inherenteki» ebaluatiboak direla, baina kontzeptu trinkotzat jo ohi direnak ez direla horrela ebaluatiboak, edota trinkotzat jo ohi diren kontzeptuetatik gutxi direla inherenteki ebaluatiboak direnak; eta horiek, seguru asko, kontzeptu arinak direla —ez dago argi, beraz, kontzeptu trinkorik egon badagoenik—. Noski, horrela inherenteki ebaluatiboak ez diren kontzeptuak erabil ditzakegu ebaluazioak egiteko (Kirchinek ere behin baino gehiagotan esaten du «esentzialki» ebaluatiboak ez diren kontzeptuak erabil ditzakegula ebaluazioak egiteko), baina horrek ez du esan nahi kontzeptu horiek berez eta bere horretan ebaluatiboak direnik. Erabil dezakegu hiztegi guztiz ez-ebaluatiboa, adibidez, ebaluazioak mekanismo pragmatikoen bitartez helarazteko entzuleari.

Aurrena, azaletik, aipatu nahiko nuke hemen Kirchinek berak sartzen duen eztabaida terminologiko labur bat: Väyrynenek kontzeptu ebaluatiboak «inherenteki» ebaluatiboak direla dio; Kirchinek, «esentzialki» ebaluatiboak direla, eta, nahiz eta badakien eztabaida terminologikoa dela, Kirchinek azaltzen du bere ustez bere hautua hobea dela. Izan ere, bere ustez, «inherenteki» bezalako etiketek iradokitzen dute P izaera «inherenteki» duen objektuak badaukala bere horretan, bere barnean, P izaera ematen dion zerbait, eta horrek iradoki dezake separazionismoa bezalako zerbait egokia dela —ez dut ikusten, eta Kirchinek esaten du Väyrynenek ez duela separazionismoaren alde egiten esplizituki, baina tira—. Horregatik, Kirchinek «esentzialki»ren alde egiten du: «Kontzeptu trinkoen izaerari buruz ari garenean gakoa da ebaluatiboak direla eta horrela direla esentzialki. Hori da dena» (Kirchin 2017: 152)<sup>14</sup>. Ez dakit ba hori ote den dena: ohikoa da ulertzea x objektuak P propietatea esentzialki badu, orduan, x ezin dela existitu P instantziatu gabe (gizakia izatea Sokratesen propietate esentziala bada, orduan Sokrates ezin da existitu gizaki izan gabe). Kontzeptu trinkoak ebaluaziorik egin gabe era-

<sup>14</sup> «The key thing about thick concepts is that they are evaluative and are so essentially. That is all.» (Kirchin 2017: 152)



bil ditzakegula onartzen duenez, arraro egiten zait kontzeptu trinkoak «esentzialki» ebaluatiboak direla esatea. Horregatik, erabaki terminologiko arraroa iruditzen zait, arraroa iruditzen zait «inherente»rekin erreparoa izatea baina «esentzial»ekin ez; baina, dena den, egia da ez dela auzi terminologiko bat besterik.

Itzul nadin Väyrynenen proposamenera; berea liburu oso bat da eta Kirchinek orri gutxitan laburtzen du —ez naiz ni hemen azalpen luzeekin hasiko—. Baina, uste dut, Väyrynen (2013)ren ideia honako hau dela. Hartu trinkotzat jo ohi den kontzeptu bat; ADORETSU, adibidez, edo KRUDEL. Egia da kontzeptu horiek ebaluazioak egiteko erabili ohi ditugula (norbait adoretsua dela esaten badugu, ona dela esan ohi dugu, eta krudela bada, berriz, txarra dela), baina, Kirchinek berak dioen moduan, posible da kontzeptu ez-ebaluatibo bat erabiltzea ebaluazioak egiteko: izan daiteke bi kontzeptu horien kasua. Erraz azal daiteke nola egin dezakegun hori mekanismo pragmatikoak erabilita: adoretsu izatea ona dela eta krudela izatea txarra dela testuinguruaren parte da, nik badakit horrela dela eta zuk ere bai, eta nik badakit zuk badakizula eta zuk nik badakidala, eta abar. Horregatik, ADORETSU kontzeptu guztiz deskriptibo eta ez ebaluatiboa izanda ere, norbait adoretsua dela esaten badut (eta semantikoki adierazi dudana guztiz ez-ebaluatiboa izanda ere), ulertzen duzu norbait hori ona dela uste dudala, eta erraza da horrela niretzat zuri nire uste hori pragmatikoki helaraztea. KRUDELEkin berdintsu gertatuko litzateke. Baina imajina dezakegu krudelkeria ontzat ematen duen gizatalde txiki bat: gure uste moraletatik oso urruti egonda ere, imajina dezakegu talde erlijiosoren batek uste duela munduan are eta gaizki gehiago egon Jainkoaren etorrera gertuago egongo dela<sup>15</sup>, eta erraz ikus dezakegu horiek zerbait krudela dela diotenean, seguru asko, zerbait horren ebaluazio positiboa egiten dutela.

Adibide hori muturrekoa da, baina hartu, adibidez, HOMOSEXUAL kontzeptua<sup>16</sup>. Gutako askok, norbait homosexuala dela diogunean, normalean, ez dugu haren jokabide sexuala aseptikoki deskribatu besterik egiten, eta ez dugu, gehienetan behintzat, pertsona hori edo bere jokabidea inongo modutan ebaluatzen (nik, behintzat, ez dut ikusten HOMOSEXUAL kontzeptu ebaluatiboa dela pentsatzeko arrazoirik). Noski, badakigu, zoritxarrez, denek ez dituztela gure uste moralak partekatzen, eta homosexualitatea jokabide kritikagarria dela uste dute, eta norbait homosexuala dela diotenean haren ebaluazio negatibo bat egiteko asmoarekin esango dute, gehienetan. Ez daukat argi Kirchinek zer esango lukeen kasu honi buruz, baina arraroa iruditzen zait hala pentsatzen duenak eta nik kontzeptu desberdinak dauzkagula esatea —ebaluatiboa berea eta, ez, nirea (eztabaidatzerakoan elkar oso ondo

<sup>15</sup> Ideia Jaume Balagueróren *Los sin nombre* filmetik hartu dut.

<sup>16</sup> Hona hemen gisa bereko adibide gehiago: ABORTU, EUTANASIA, IJITO, KOMUNISTA, NAZIONALISTA.

ulertzen dugu behintzat)—, eta are arraroagoa iruditzen zait esatea, kontzeptu bera daukagunez, nirea ere (negatiboki?) ebaluatiboa dela.

Noski, erantzunik errazena homosexual bezalako kontzeptuak guztiz deskriptiboak direla esatea iruditzen zait; ez direla ez ebaluatiboak eta ez trinkoak, eta erabil ditzakegula horiek, nolana ere, testuinguruaren arabera ebaluazioak egin eta halakoak (pragmatikoki) komunikatzeko. Horrek iradoki dezake beste ustezko kontzeptu trinkoekin ere gauza bera gertatzen dela, ez direla ez trinko eta ez ebaluatibo, eta horiek ebaluazioak egiteko erabili ohi baditugu hori dela balio batzuen onarpena gauza jakina eta testuinguruaren parte delako. ESKUZABAL, ADORETSU, KRUDEL, JAKINTSU, NARRAS, JATOR, ABEGIKOR, JELOSKOR, BIHOZBERA, ARRUNT, LOTSAGABE, TENTAGARRI edo ALFER bezalako ustezko kontzeptu trinkoak hartzen baditugu, eman dezakegu antzeko azalpen bat. Egia da, erabili ohi ditugu ebaluazioak egiteko eta, agian, ohi-koagoa da kontzeptu horiek ebaluatiboki erabiltzea ez-ebaluatiboki baino. Baina hori azal daiteke esanez hori hala dela oinarrizko balioak partekatzen ditugulako, eta badakigulako oinarrizko balio horiek partekatzen ditugula, eta horrela hori gure hizketa-ekintzek parte hartzen duten testuinguruaren parte dela, eta ebaluazio horiek pragmatikoki komunikatzen ditugula. Eta, bide batez, jarrera honek oso erraz (Kirchinek baino errazago, esango nuke) azal dezake zergatik ematen den *malgutasun ebaluatiboa*: ustezko kontzeptu trinkoak ez dira ez ebaluatibo eta ez trinko, eta, horregatik, testuinguruaren arabera, erabil ditzakegu ebaluazio positiboak egiteko, ebaluazio negatiboak egiteko, edo ebaluaziorik egin gabe deskribapenak egiteko —ustezko kontzeptu trinkoen malgutasun ebaluatiboa euren izaera trinko eta ebaluatiboaren aurkako argudioa iruditzen zait, ez dakit zergatik ez duen Kirchinek hau ia aipatu ere egiten malgutasun ebaluatiboaz ari denean—. Zailagoa zait ikustea nola konbina daitekeen kontzeptu trinkoen ustezko izaera ebaluatibo esentziala horiekiko liberalismoarekin, baina, berriz, Kirchinek ez du hau azaltzen.

Noski, ikuskera honek badauzka arazoak. Horietako bat da azalpen mota honek, agian, arraroagoa dirudiela kontzeptu trinko batzuei dagokienean. Hartu, adibidez, kontzeptu arinak izatetik oso gertu dauden kontzeptu trinkoak: *JUSTU* (*just*), esate baterako. Ez dago argi benetan uler daitekeenik kontzeptu hori guztiz deskriptiboa dela, eta posible denik zerbait justutzat deskribatu eta ebaluaziorik ez egitea. Ez dakit, agian kontzeptu arina dela esan beharko genuke, eta kontzeptu arinen artean badaudela modalitate desberdinak (ona eta txarra balio etikoei dagokienez, ona eta txarra balio estetikoiei dagokienez, ona eta txarra justiziar dagokionez). Auzi horiek liburu-kritika honen helburuetatik kanpo geratzen dira; ez naiz horietan sartuko.

Väyrynen (2013)k ematen ditu bere jarreraren aldeko argudio batzuk, eta Kirchinek erantzuten die, oso labur. Väyrynenen argudio bat da adierazpen trinkoen ebaluazioak *proiektatu* egiten direla operatzaile logiko eta epistemikoen eraginpean erortzen direnean, eta Kirchinen erantzuna da, Roberts

(2015)en ideia bati jarraituz, termino arinekin ere ebaluazioa proiektu daitekeela modu bertsuan: moral oso kontserbadorea ez daukan batek LIZUN (*lewd*) erabiltzeko erreparoa izango lituzkeen gisan, diote Kirchinek eta Robertsek, nietschearrak erreparoa izango lituzke ON erabiltzeko<sup>17</sup>. Väyrynenen beste argudio bat da erabil dezakegula adierazpen trinko bat ebaluaziorik bada-goela ukatzeko, kontraesanean erori gabe (bere adibidea: «Madonnaren saioa lizuna izan ala ez, ez da txarra sexualki esplizituak diren erakustaldiei berezkoa zaien moduren batean»); noski, Kirchinek erantzuten du hori ez dela arazoa bera bezalako liberal batentzat. Baina, berriz: ez dut ulertzen zer esan nahi duen «esentzialki» ebaluatiboa den kontzeptu bat erabil dezakegula ebaluazio positibo nahiz negatiboak egiteko, edota ebaluatiboak ez diren deskribapenak egiteko; eta, besterik gabe, horrela egin dezakegula esatea, ez da ezer azaltzea. Malgutasun ebaluatiboak zuzenean Väyrynenena bezalako jarreraren alde egiten duela esango nuke.

Zortzigarren kapitulan anti-separazionismoari planteatu ohi zaizkion bi argudio hartzen ditu kontuan, eta bederatzigarren eta azken kapitulan ideia orokor batzuk aipatzen ditu: kontzeptu trinkoekiko defendatu duen ikuskera nola konbina daitekeen beste ideia meta-etiko batzuekin. Erreparoa oso laburra eta azalekoa egiten die gaurko jarrera meta-etiko batzuei, haien motibazio posibleak besterik gabe aipatuz eta batzuetan oso labur kritikatu. Zortzigarren kapituluko argudioak ez zaizkit aurreko edukiak bezain interesgarriak iruditzen, eta bederatzigarrenean Kirchinek ez ditu bere epaiak nahikoa motibatu eta argudiatzen (ez baita hori bere asmoa; bere iritzi batzuk azaldu besterik ez du egin nahi) —ez diet horiei helduko, beraz—.

## Erreferentziak

- ELSTEIN, Daniel eta Thomas HURKA. 2009. «From Thin to Thick: Two Moral Reductionist Plans». *Canadian Journal of Philosophy* 39: 515-535.
- BLACKBURN, Simon. 1992. «Through Thick and Thin». *Proceedings of the Aristotelian Society* 66: 284-99.
- DANCY, Jonathan. 1995. «In Defense of Thick Concepts». *Midwest Studies in Philosophy* 20: 263-79.
- ELSTEIN, Daniel eta Thomas HURKA. 2009. «From Thin to Thick: Two Moral Reductionist Plans». *Canadian Journal of Philosophy* 39: 515-35.
- GIBBARD, Allan. 1992. «Thick Concepts and Warrant for Feelings». *Proceedings of the Aristotelian Society* 66: 267-83.
- KIRCHIN, Simon. 2017. *Thick Evaluation*. Oxford: Oxford University Press.

<sup>17</sup> Nire zalantzak dauzkat ea Robertsek eta Kirchinek Väyrynenen argudioa ulertzen duten hemen, eta nabaria iruditzen zait euren adibidean ON horrela erabiltzeko erreparoa daukan nietschearrak 'on'ekin ez duela besterik gabe «moralki ona» esan nahi, baizik eta «moralki ona estandar judu-kristau tradizionalaren arabera»; baina ez naiz horietan sartuko hemen.

- ROBERTS, Debbie. 2015. «Review of *The Lewd, the Rude and the Nasty: A Study of Thick concepts in Ethics* by Pekka Väyrynen». *Ethics* 125: 910-15.
- RYLE, Gilbert. 1968. «The Thinking of Thoughts: What is «Le Penseur» Doing?». In Ryle, Gilbert: *Collected Papers, Volume 2*. Londres: Hutchinson, 480-96.
- SMITH, Michael. 2013. «On the Nature and Significance of the Distinction between Thick and Thin Ethical Concepts». In S. Kirchin (arg.), *Thick Concepts*. Oxford: Oxford University Press, 97-120.
- VÄYRYNEN, Pekka. 2013. *The Lewd, the Rude and the Nasty: A Study of Thick Concepts*. New York: Oxford University Press.
- WILLIAMS, Bernard. 1985. *Ethics and the Limits of Philosophy*. Cambridge: Harvard University Press.

*Ekain Garmendia*

ILCLI eta Logika eta Zientziaren Filosofia Saila (UPV/EHU)